

Egilea: Elene Plazaola Sudupe

HISTORIA EZ DA IDATZIETAN AGERTZEN DEN GUZTIA

Zer da protagonista izatea? Ba al du historiak protagonistarik?

Protagonista bat gertaera nagusi batean parte hartzen duen pertsona garrantzitsu bat da. Historiak hainbat eta hainbat protagonista ditu, baina gehiago ere izango ditu idatzietan agertzen ez direnak, gizon eta batez ere emakume protagonistak askoren historiak.

Historiak, esan dudana bezala, protagonista asko ditu, baina niretzat ezagunenak direnak aipatzen ahaleginduko naiz. Kristobal Kolon Amerikaren esploratzailea, Juan Sebastian Elkano munduari bira eman zion lehen gizakia, Francisco Franco espainiar diktadorea edota Adolf Hitler alemaniar diktadorea, Diego de Almagro espainiar nabigatzailea, Francisco Pizarro Espainiar konkistatzailea, Isaac Newton grabitatearen formularen asmatzailea edo Albert Einstein mundu mailako asmatzaile ospetsuenetako bat. Egin dudana zerrenda hau, hau da, gizonezkoena soilik, emakumeak landu edo ikasi ez dituen pertsona batek egingo zuen, baina nik hori aldatu nahi dut eta hemen doazkizue Historiako emakume garrantzitsuen zerrenda bat: Valentina Tereshkova espaziora joan zen lehen emakumea, Marie Curie erradiazioa sortu zuen fisikaria, Ada Lovelace lehenengo algoritmo informatikoa sortu zuena, Simone de Beauvoir emakumeen eskubideen defentsan parte hartu zuena, Cecilia Payne eguzkia hidrogeno-gasez eta helioz osatuta zegoela deskubritu zuena edo Frida Kahlo Mexikoko margolaria izan zen, bere autorretratuengandik ezaguna, mugimendu surrealisten parte gisa kalifikatua, eta bere arazoari zailari aurre egin zioena.

Emakume asko eta asko izango ziren Aro Modernoan, nahiz eta dokumentu idatzietan gutxi batzuen izenak agertu, garai hartan gutxietsiak zeudelako. Eta segur aski hain gutxietsiak zeuden izugarritzko gauzak egingo zizkietela gizonek nire ustetan, irudikatu, emakume bat tresna berri baten asmatzailea dela, hori ezinezkoa izango zen garai hartan batzuen usteetan eta gainera emakumea ezin zen inoiz gizonen gainetik egon, orduan asmatzailea gizona zela esango zuten.

Edota, emakume askori beraien ametsak zapuztu, eta etxean lan egitera behartu... Hori da nik uste dudana, egia edo gezurra den ez dakit, beste gauza asko bezala. Eta eskerrak gauza hauek Historian zehar aldatzen joan diren, ze bestela...

Nik Historiako emakumeak gutxietsiak eta eskubide gutxirekin irudikatzen ditut, bai, eskubide gutxi eta penagarriekin. Emakumeek ez zuten eskubiderik bozkatzeko, gerrara joateko, batzuek ezta eskolara joateko ere. Garai haietan emakumeak ezertarako balio ez zutela pentsatu ohi zen, beno ezertaerako ez batzuen ustetan, etxea garbitzeko, umeak zaintzeko, hau da, etxeko andrea izateko. Baina, emakume ausart eta indartsu horiei esker pentsamendu horiek aldatzen joan dira eta geroz eta eskubide gehiago lortzen joan dira denboran zehar. Iraultza horri esker, eta emakume horiei esker ez ginateke izango orain garen emakumeak eta izango direnak.